



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

A K T A

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2002ko azaroaren 8a

LEKUA: Kultur etxeko bilkura aretoa

DEIALDIA: Lehena **HASIERA-ORDUA:** 19:15 **AMAIERA-ORDUA:** 19:20

BERTARATUAK:

Alkatea

Mirari Arruabarrena Elizalde

Zinegotziak

Ramon Etxeberria Aldaz, Eneko Olariaga Arruti, Mari Jose Garate Etxeberria, Eneko Dorronsoro Portularrume, Itziar Olariaga Larrañaga, Daniel Barrenetxea Sarasua, Jose Miguel Leunda Zubizarreta eta Eugenio Cotado Iturain.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi

BERTARATU EZ DIRENAK: Andoni Sarasua Oleden, herritik kanpo dagoelako.

Aztergai zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, Orioko Goiko Kanean lur azpiko garajeak eraikitzeke obren proiektu teknikoa.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Orioko Goiko Kanean lur azpiko garajeak eraikitzeke obren kontratazioa arautuko duten baldintza ekonomiko-administratiboak. Kontratazioa lehiaketa bidez egingo da, prozedura irekiz eta ohiko tramitazioz.
- 3.- Alkate-presidenteari ahalmen zabala ematea, egoki bada, Orioko Goiko Kanean lur azpiko garajeen eraikuntza sustatzeko behar diren agiri publiko eta pribatu guztiak izenpetzeko.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO GOIKO KALEAN LUR AZPIKO GARAJEAK ERAIKITZEKO OBREN PROIEKTU TEKNIKOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, 2002ko azaroaren 4an egindako Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

ONARTZEA Orioko Goiko Kanean lur azpiko garajeak eraikitzeako obren proiektu teknikoak. Proiektu teknikoak Juan Eizmendi Aranalde arkitektoak idatzi du, eta 401.737 euroko aurrekontua du (BEZ barne).

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO GOIKO KALEAN LUR AZPIKO GARAJEAK ERAIKITZEKO OBREN KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK. KONTRATAZIOA LEHIAKETA BIDEZ EGINGO DA, PROZEDURA IREKIZ ETA OHIKO TRAMITAZIOZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, 2002ko azaroaren 4an egindako Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

ONARTZEA Orioko Goiko Kanean lur azpiko garajeak eraikitzeako obren kontratazioa arautuko duten baldintza ekonomiko-administratiboak. Kontratazioa lehiaketa bidez egingo da, prozedura irekiz eta ohiko tramitazioz. Laburpen moduan, onartutako klausulen edukia honako hau da:

1. Erakunde adjudikatzailea:

a) Erakundea: Orioko Udala.

b) Espedientea bideratuko duen departamentua: Idazkaritza-Kontuhartzailletza.

2. Kontratuaren helburua:

a) Helburuaren azalpena: Orioko Goiko Kanean lur azpiko garajeak eraikitzea, proiektu teknikoaren arabera eta kontratu izaerako espedientean ageri den dokumentazio teknikoaren arabera.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

b)Exekuzio epea: Epea, guztira, 5 hilabetekoa izango da.

3.Adjudikazioaren tramitazioa, prozedura eta era:

a)Tramitazioa: Ohikoa.

b)Prozedura: Irekia.

c)Era: Lehiaketa.

4.Lizitazioaren kopurua:

401.737 euro, BEZa barne. Lizitatzailleek hobe dezakete kopuru hori.

5.Garantiak:

Behin-behinekoa: 8.034,74 euro.

Behin-betikoa: Adjudikazio kopuruaren % 4.

6.Iragarki gastuak:

Adjudikaziodunaren kontura izango dira.

7.Kontratataren sailkapena:

—Taldea C, azpitaldea 2, kategoria c.

8.Agiriak jasotzeko:

Espedienteko dokumentazio teknikoa Planitec Kopia dendan azertu ahal izango da: Urdaneta, 4. Donostia.

9.Eskaintzak aurkezteko:

a)Epea: 26 egun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

b)Aurkeztu behar diren agiriak: Baldintza orrietan zehaztutakoak.

c)Aurkezteko tokia: Orioko Udaleko Idazkaritza-Kontuhartzailertzan. Herriko plaza, 1. 20810 Orio.

d)Aurkezteko orduak: Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:30etara.

10.Eskaintzen irekiera:

a)Tokia: Orioko Udaletxea.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

b)Eguna: Proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunaren hurrengo bigarren laneguna. Egun hori larunbata tokatuz gero, hurrengo lanegunera pasako da.

c)Ordua: Eguerdiko 12:00etan.

3.- ALKATE-PRESIDENTEARI AHALMEN ZABALA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO GOIKO KALEAN LUR AZPIKO GARAJEEN ERAIKUNTZA SUSTATZEKO BEHAR DIREN AGIRI PUBLIKO ETA PRIBATU GUZTIAK IZENPETZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, 2002ko azaroaren 4an egindako Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

Alkate-presidenteari **AHALMEN ZABALA EMATEA** Orioko Goiko Kalean lur azpiko garajeen eraikuntza sustatzeko behar diren agiri publiko eta pribatu guztiak izenpetzeko.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA

IDAZKARIA,